

1.- GAI OROKORRAK

LURRALDE EREMUA (AZPIGUNEAK)
NOIZ HASIKO DA
EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA
EGOILIARREN TXARTEL MOTAK
EZINTASUNA DUTEN PERTSONEN IBILGAILUAK
TXARTELEN INDAR ALDIA
TASAK ORDAINTZEA

2.- BIZILAGUNEN TXARTELAK

ESKATZAILEEK BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK
AURKEZTU BEHAR DIREN AGIRIAK
ETXE BAKOITZEKO ZENBAT TXARTEL
ORDAINDU BEHARREKO TASA

3.- MERKATARITZA DENDEN TXARTELAK (1 MOTA)

ESKATZAILEEK BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK
AURKEZTU BEHAR DIREN AGIRIAK
DENDA BAKOITZEKO ZENBAT TXARTEL
ORDAINDU BEHARREKO TASA

4.- MERKATARITZA DENDEN TXARTELAK (2 MOTA)

ESKATZAILEEK BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK
AURKEZTU BEHAR DIREN AGIRIAK
DENDA BAKOITZEKO ZENBAT TXARTEL
ORDAINDU BEHARREKO TASA

1.- GAI OROKORRAK

LURRALDE EREMUA (AZPIGUNEAK):

0 Gunean (Erdialdea) momentuz azpigune bakar bat mugatu da:

0.1 azpigunea (Ferixalekua):

Honako ez dugu txartelik emango

1 Gunean (Uribarri-Loramendi) hiru azpigune daude:

1.1 azpigunea:

- Arrasate pasealekua 18, 33, 35 eta 37

- Loramendi kalea 1, 2, 3, 4, 5, 7 eta 9

- Arimazubi plaza 1 eta 2

1.2 azpigunea:

- Uribarri etorbidea 1, 2ac, 3, 5, 7, 4ac, 6ac, 8ac, 10ac, 12ac, 14ac, 16ac, 18ac, 20ac, 22ac eta 24ac

- Uriburu kalea 9, 11, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 21, 23, 25, 27 eta 29

- Uribe auzoa 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21 eta 22

- Loramendi kalea 6

1.3 azpigunea:

Honako ez dugu txartelik emango

Txartelak emango ditugu azpigune zehatzetarako (ez gune osoarako).

NOIZ HASIKO DA:

2015eko urtarrilaren 2an

EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA:

0.1 Azpigunean (Ferixalekuan)

Astelehenetik – zapatuta arte.

8:00 - 14:00 eta 16:00 – 20:00

Ez da zerbitzurik izango: domekan, jaiegunean eta abuztu osoan.

1 Gunean (Uribarri-Loramendi):

Astelehenetik – egubakoitzera arte.

9:00 - 19:00.

Ez da zerbitzurik izango: zapatuan, domekan, jaiegunean eta abuztu osoan.

EGOILIARREN TXARTEL MOTAK:

- 1.- Ohikoa (bizilagunentzat)
- 2.- Merkataritzakoa, 1 mota (merkataritza dendak, ibilgailua bertan erroldatuta dagoenean)
- 3.- Merkataritzakoa, 2 mota (merkataritza dendak, ibilgailuak errotulazioa daukanean)

EZINTASUNA DUTEN PERTSONEN IBILGAILUAK:

Beste ibilgailuen araubide berbera izango dute (txartela edo ticket-a izan beharko dute).

TXARTELEN INDARRALDIA:

Urte amaiera arte.

TASAK ORDAINTZEA:

Egoiliar txartelak eskuratzeko tasak ordainduko dituzte (urtero Ordenantza fiskaletan zehaztuko dugu kopurua).

2.- BIZILAGUNEN TXARTELAK

ESKATZAILEEK BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK:

Ibilgailuen jabeek:

1. Ibilgailuaren jabea izatea (ibilgailuaren zirkulazio baimenean hala agertzen dena).
2. Arrasaten erroldaturik egotea, TAO azpigune zehatz batean.
3. Indarrean dagoen gidabaimena izatea.
4. Ibilgailua egon behar da erroldaturik interesduna erroldaturik dagoen helbide berean.
5. Ibilgailua izan behar da: turismo bat edo ibilgailu misto bat. Ez dugu emango txartelik autokarabanentzat.
6. Eskatzailea egunean egon behar da Arrasateko Udalarekin dituen betebeharretan (zergapekoak izan edo ez).

Ezinduentzako txartela daukaten pertsona fisikoak:

1. Aurreko baldintza guztiak bete behar dituzte 3.a salbu (gidabaimena izatea).
2. Gidatzeko baimenik indarrean ez badute, hau aurkeztu beharko dute, Udaletxeko gizarte zerbitzuen departamentuak emandako egiaztageria, non egiaztatzen den pertsona hori ibilgailuen aparkalekuan uzteko ezinduentzako txartelaren jabe dela.

Ibilgailua leasing edo renting-ean daukatenek:

1. Kontratuaren titularra Arrasaten erroldaturik egotea, TAO azpigune zehatz batean.
2. Indarrean dagoen gidabaimena izatea.
3. Ibilgailua izan behar da: turismo bat edo ibilgailu misto bat. Ez da emango txartelik autokarabanentzat.
4. Ibilgailuaren aseguruan ohiko gidari moduan agertzea.
5. Eskatzailea egunean egon behar da Arrasateko Udalarekin dituen betebeharretan (zergapekoak izan edo ez).

AURKEZTU BEHAR DIREN AGIRIAK:

Ibilgailuen jabeek:

1. NA, pasaporte, bizileku txartela.
2. Gidatzeko baimena.
3. Ibilgailuaren zirkulazio txartela.
4. Ibilgailuaren fitxa teknikoa.

Ezinduentzako txartela daukaten pertsona fisikoak:

1. Gidabaimena ez badauka, Udaletxeko gizarte zerbitzuen departamentuak emandako egiaztagiria, non egiaztatzen den pertsona hori ibilgailuen aparkalekuan uzteko ezinduentzako txartelaren jabe dela

Ibilgailua leasing edo renting-ean daukatenek:

1. NA, pasaporte, bizileku txartela.
2. Gidatzeko baimena.
3. Zirkulazio txartela.
4. Ibilgailuaren fitxa teknikoa.
5. Leasing kontratua (titularra eskatzailea dela egiaztatzeko).
6. Ibilgailuaren aseguruua (eskatzailea ohiko gidaria dela egiaztatzeko).

ETXE BAKOITZEKO ZENBAT TXARTEL:

Ez dago mugarik.

ORDAINDU BEHARREKO TASA:

2015. urtean 10 €.

3.- MERKATARITZA DENDEN TXARTELAK (1 MOTA)

Txartel mota honen **berezitasuna**: ibilgailua egon behar da erroldatuta denda dagoen helbidean.

ESKATZAILEEK BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK:

Ibilgailuen jabeek:

1. Denda edo establezimendua egongo da dagokion TAO azpigunean.
2. Ibilgailua egon behar da erroldaturik Arrasaten, denda dagoen helbide berdinean.
3. Ibilgailuaren titularrak indarrean dagoen gidabaimena izatea.
4. Ibilgailua izan behar da: turismo bat, ibilgailu misto bat edo industrialia gehienezko pisu baimendua 3.500 kg.tik behera duena.
5. Eskatzailea egunean egon behar da Arrasateko Udalarekin dituen betebeharretan (zergapekoak izan edo ez).

Ibilgailua leasing edo renting-ean daukatenek:

Ez dugu aukera hau aurreikusi.

AURKEZTU BEHAR DIREN AGIRIAK:

1. NA, pasaportea, bizileku txartela.
2. Gidatzeko baimena.
3. Ibilgailuaren zirkulazio txartela.
4. Ibilgailuaren fitxa teknikoa.

DENDA BAKOITZEKO ZENBAT TXARTEL:

Denda bakoitzerako txartel bakarra emango da.

ORDAINDU BEHARREKO TASA:

2015. urtean 20 €.

4.- MERKATARITZA DENDEN TXARTELAK (2 MOTA)

Txartel mota honen **berzitasuna**: ibilgailua ez da egon behar erroldatuta denda dagoen helbidean (beste udalerrri baten ere egon daiteke), baina errotulatuta egon behar da.

ESKATZAILEEK BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK:

Ibilgailuen jabeek:

1. Denda edo establezimendua egongo da kokatuta dagokion TAO azpigunean.
2. Ibilgailua beste helbide baten egon daiteke erroldaturik (beste udalerrri baten ere bai).
3. Ibilgailua errotuluduna izan behar da eta errotulazioa jardueraren merkataritza izenarekin eta/edo anagramarekin bat etorriko da, eta Arrasaten dagoen kokalekua aipatu behar du.
4. Ibilgailua izan behar da: ibilgailu misto bat edo industrialak gehienezko pisu baimendua 3.500 kg.tik behera duena.
5. Ibilgailuaren titularra jardueraren titularra izango da.
6. Eskatzailea egunean egon behar da Arrasateko Udalarekin dituen betebeharretan (zergapekoak izan edo ez).

Ibilgailua leasing edo renting-ean daukatenek:

- 1.- Goian aipaturikoak, 5.a izan ezik.
- 2.- Leasing edo renting-aren titularra jardueraren titularra izango da.

AURKEZTU BEHAR DIREN AGIRIAK:

1. NA, pasaporteak, bizileku txartela.
2. Gidatzeko baimena.
3. Ibilgailuaren zirkulazio txartela.
4. Ibilgailuaren fitxa teknikoa.
5. Ibilgailuaren errotulazioaren argazkiak

DENDA BAKOITZEKO ZENBAT TXARTEL:

Ez dago mugarik.

ORDAINDU BEHARREKO TASA:

2015. urtean 50 €.